BERRIKUNTZAREN AZELERAZIOA

BERRIKUNTZAREN AZELERAZIOA

Aukeretatik eraginera

Aukerak emaitza bihurtzea, hori da berrikuntzaren erronka handia. Behin norabidea zehaztuta, enpresek ahalmena izan behar dute ekimen zehatzak aktibatzeko, horiek gauzatzeko, eskalatzeko eta sortzen duten balioa erakusteko.

Alde horretatik, 2. Moduluko ikastaroek bi xede argi dituzte: berrikuntza-prozesuak azkartzea eta inpaktua sortzeko ikuspegia prozesu horietan sendotzea. Horretarako, hainbat tresna eta ikuspegi jarriko dituzte partaideen eskura, erronkak soluzio bihurtzeko, haiek garatzeko eta enpresan ahalik eta inpaktu erreal handiena sortzeko.

NOLA AZKARTU BERRIKUNTZA-PROZESUA ADIMEN ARTIFIZIALAREN BIDEZ: ERRONKATIK SOLUZIORA

EMAN IZENA

DATAK ETA ORDUTEGIA	1. Saioa. Azaroak 11, asteazkena. 09:30etik 13:30era 2. Saioa. Azaroak 18, asteazkena. 09:30etik 13:30era. * Bi saioetan parte-hartzea derrigorrezkoa da.
FORMATUA	Aurrez aurrekoa.
LEKUA	Eraikin Nagusiko auditoriuma (101 eraikina), Zamudio/ Derioko campusa – Euskadiko Parke Teknologikoa.
IRAUPENA	8 ordu.
PLAZAK	30.
NORENTZAT	• Zuzendaritzako arduradunentzat eta beren erakundeetan berrikuntza-prozesuak bultzatu nahi dituzten sailetako arduradunentzat. Bereziki gomendatua erakunde hauentzat: • Beren xede nagusian eta helburu estrategikoetan aurrera egiteko, berrikuntza funtsezko palankatzat hartzen dutenentzat. • Berrikuntza kudeatzeko eredu argiago eta eraginkorrago bat ezarri nahi dutenentzat, eta bide horretan, berrikuntza-prozesuak modu egituratuan martxan jartzeko jakintzak, metodologiak eta tresnak eskuratu nahi dituztenentzat. • Adimen artifizialak berrikuntza-prozesuaren fase desberdinak azkartzeko, sinplifikatzeko eta indartzeko eskaintzen dituen aukerak baliatu nahi dituztenentzat. *Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- *Double Diamond* metodologia ulertzea eta aplikatzea, berrikuntza-prozesuak modu egituratuan bideratzeko.
- Norberaren enpresarako berrikuntza-erronka garrantzitsuenak identifikatzea eta zehaztea.
- Adimen artifizial sortzaileak eskaintzen dituen tresnak erabiltzea berrikuntza-prozesuaren fase desberdinak azkartzeko: informazioaren azterketarako teknikak aplikatzeko, ideiak sortzeko eta soluzio aukerak ebaluatzeko.
- Norberaren enpresaren erronka erreal bati loturiko aplikazio praktiko bat garatzea.

PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

Adimen artifizialaren bidez areagotutako berrikuntza-prozesuaren oinarriak

- "*Double Diamond*" metodologia, modu egituratuan berritzeko esparru gisa.
- Adimen artifizial sortzaileak berrikuntza-prozesuetan duen funtzioa.
- Formakuntzan parte hartuko duten kideak aurkeztea eta landuko diren erronkak bateratzea.

Erronka zein den esploratzea eta zehaztea

- Nola ulertu hobeto antolaketa mailako arazoak edo erronkak.
- Informazio garrantzitsua biltzeko eta ikuspegiak zabaltzeko teknikak.
- AA erabiltzea informazioa ikertzeko, aztertzeko, laburtzeko eta egituratzeko.
- Beharrizanak, muinean dauden arrazoiak eta funtsezko faktoreak identifikatzea.
- Berrikuntza zer erronkaren gainean egin nahi den lehenestea eta zehaztea.

Aplikazio praktikoa

- Adimen artifizialeko tresnen bidez gidatutako ariketak.
- Partaideek adierazitako erronka errealen gaineko lanketa.
- Saioen arteko lanerako ikasketa gakoak eta orientabideak.

Aurrerapenak eta ikasketak bateratzea

- Saioen artean egindako lanaren esperientziak eta feedbacka konpartitzea.

Soluzioak asmatzea, ebaluatzea eta horien prototipoa egitea

- Soluzio aukerak sortzeko teknikak.
- Nola erabili AA aukerak bilatzeko, erreferentziak identifikatzeko eta agertoki berriak esploratzeko.
- Adimen artifizialean oinarritutako ideiak eta soluzioak sortzea.
- Aukerak ebaluatzea eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Lehentasunezko soluzioak hautatzea.
- Soluzioak ezartzeko eta haien eskalagarritasuna antolatzeko lehen ikuspegiak diseinatzea.

Aplikazio praktikoa eta ondorioak

- Landutako erronkei loturiko proposamenak garatzea.
- Emaitzak eta elkarrekin ikasitakoa bateratzea.
- Ikasitakoa enpresara eramateko hurrengo urratsak identifikatzea.

Oharrak:

- Formakuntzaren izaera praktikoa kontuan hartuta, partaideek ordenagailu eramangarria eraman beharko dute.
- Innobasqueko bazkide diren erakundeek soilik trebakuntza jaso ondoren jarraipen pertsonalizatua egiteko aukera izango dute.

NOLA AZKARTU BERRIKUNTZA-PROZESUA ADIMEN ARTIFIZIALAREN BIDEZ: ERRONKATIK SOLUZIORA

PRESTAKUNTZAREN GIDARIAK

JOSÉ ANTONIO CASTAÑO

PROZESU ETA DIGITALIZAZIO ARLOETAKO ZUZENDARIA

Industria ingeniaria, Enpresa Administrazioan eta Zuzendaritzan masterra (MBA) eta industria plantetako fabrikazio eta zuzendaritza postuetarako teknologia aurreratuetan espezialista.

30 urtetik gorako esperientzia du 200 erakunderi baino gehiagori prozesuen optimizazioan, digitalizazioan eta automatizazioan aholku ematen. Aditua da taldean lan egiteko eta talde-lan hori kudeatzeko metodologia aurreratuetan. Bere ibilbidean aholkulari lanak eta enpresa-zuzendaritzako lanak bete izan ditu. Jarduera profesional horrekin batera, irakaslea da graduondoko programetan eta berrikuntza, lidergo eta antolaketa-garapeneko formakuntza espezializatuan.

HUGO CALVO

AHOLKULARITZAKO BAZKIDEA

Espezialista da antolaketen eraldaketan, digitalizazioan eta adimen artifizialean. Graduondoko formakuntza du enpresen zuzendaritzan, pertsonen kudeaketan eta komunikazioan, eta prestakuntza ziurtatua metodologia arinetan, berrikuntzan eta antolaketaren hobekuntzan.

Azken 15 urteotan prozesuen, teknologiaren eta pertsonen kudeaketaren esparruetan aholkulari eta zuzendari lanetan aritu da, eta proiektu nazionaletan eta nazioarteko proiektuetan izan da partaide, besteak beste, Iberdrola, Naturgy, Telefónica, Repsol, Ford, Daimler, Renfe eta Generali konpainietan.

NOLA ESKALATU BERRIKUNTZA ADIMEN ARTIFIZIALAREN BIDEZ

EMAN IZENA

DATAK ETA ORDUTEGIA	Azaroak 26, osteguna. 09:30etik 13:30era.
FORMATUA	Aurrez aurrekoa.
LEKUA	Eraikin Nagusiko Kreagune aretoa (101 eraikina), Zamudio/Derioko campusa – Euskadiko Parke Teknologikoa.
IRAUPENA	4 ordu.
PLAZAK	30.

NORENTZAT	• Berrikuntzako, estrategiako eta negozio-garapeneko arduradunentzat, beren erakundeetan berrikuntza sendotu eta eskalatu nahi dutenentzat.
	Bereziki gomendatua erakunde hauentzat:
	• Berrikuntza beren xedea lortzeko giltzarritzat jotzen dutenentzat.
	• Dagoeneko berrikuntza-ekimen arrakastatsuak egin ondoren,
	  • Esperientzia enpresaren eremu gehiagotara eskalatu nahi dutenentzat, eta/edo
	  • Esperientzia pilotuetatik abiatuta negozio berriak (jarduera berriak) eta aurrekoekin loturarik ez dutenak sortu nahi dituztenentzat.
	• Adimen artifizialak berrikuntzaren eskalatze-prozesua katalizatzeko eta sinplifikatzeko eskaintzen dituen aukerak baliatu nahi dituztenentzat.
	
	*Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- Erakunde baten barnean berrikuntza eskalatzeko palanka nagusiak ulertzea.
- Berrikuntza sendotzeko eta hedatzeko oztopoak eta aukerak identifikatzea.
- Ekimen berritzaileen gobernantzarako eta jarraipenerako mekanismoak diseinatzea.
- Proiektu arrakastatsuak prozesu errepikagarri eta jasangarri bihurtzeko estrategiak esploratzea.
- Adimen artifiziala erabiltzea berrikuntza eskalatzeko prozesua azkartzeko eta errazteko.



NOLA ESKALATU BERRIKUNTZA ADIMEN ARTIFIZIALAREN BIDEZ

PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

Abiapuntua ulertzea

- Antolakundearen barnean berrikuntza sendotzeko eta hedatzeko dauden oztopo eta aukera nagusiak identifikatzea.

Eskalatzeko palankak ulertzea

- Berrikuntzako portfolio orekatu bat osatzea.
  - Nola orekatu hobekuntzarako, hazkunderako eta eraldaketarako ekimenak, berrikuntzaren inpaktua ahalik eta handiena izan dadin.
- Berrikuntzaren gobernantza diseinatzea.
  - Nola zehaztu ekimen berritzaileak erabakitzeko, lehenesteko eta haien jarraipena egiteko irizpideak.
- Proiektu arrakastatsuak prozesu errepikagarri bihurtzeko bidea egitea.
  - Nola transferitu ikasketak eta nola hedatu jardunbide egokiak antolakundearen beste eremu batzuetara.
- Barnetik negozio berriak sortzea.
  - Nola identifikatu eta balioztatu hazkunderako aukera berriak.
- Kultura eskalatzea, eta ez soilik prozesua.
  - Nola sustatu parte-hartzea eta berrikuntzarako gaitasuna modu jasangarrian antolakunde osoan.

Ahalmena ulertzea: Banakako lana edo antolakunde mailakoa: partaide bakoitzak identifikatu egingo du zer palankatan duen gap handiena eta ekintzarako lehen hipotesia zirriborratuko du.

Oharrak:

- Formakuntzaren izaera praktikoa kontuan hartuta, partaideek ordenagailu eramangarria eraman beharko dute.
- Innobasqueko bazkide diren erakundeek soilik trebakuntza jaso ondoren jarraipen pertsonalizatua egiteko aukera izango dute.

PRESTAKUNTZAREN GIDARIAK

JOSÉ ANTONIO CASTAÑO

PROZESU ETA DIGITALIZAZIO ARLOETAKO ZUZENDARIA

Industria ingeniaria, Enpresa Administrazioan eta Zuzendaritzan masterra (MBA) eta industria plantetako fabrikazio eta zuzendaritza postuetarako teknologia aurreratuetan espezialista.

30 urtetik gorako esperientzia du 200 erakunderi baino gehiagori prozesuen optimizazioan, digitalizazioan eta automatizazioan aholku ematen. Aditua da taldean lan egiteko eta talde-lan hori kudeatzeko metodologia aurreratuetan. Bere ibilbidean aholkulari lanak eta enpresa-zuzendaritzako lanak bete izan ditu. Jarduera profesional horrekin batera, irakaslea da graduondoko programetan eta berrikuntza, lidergo eta antolaketa-garapeneko formakuntza espezializatuan.

HUGO CALVO

AHOLKULARITZAKO BAZKIDEA

Espezialista da antolaketen eraldaketan, digitalizazioan eta adimen artifizialean. Graduondoko formakuntza du enpresen zuzendaritzan, pertsonen kudeaketan eta komunikazioan, eta prestakuntza ziurtatua metodologia arinetan, berrikuntzan eta antolaketaren hobekuntzan.

Azken 15 urteotan prozesuen, teknologiaren eta pertsonen kudeaketaren esparruetan aholkulari eta zuzendari lanetan aritu da, eta proiektu nazionaletan eta nazioarteko proiektuetan izan da partaide, besteak beste, Iberdrola, Naturgy, Telefónica, Repsol, Ford, Daimler, Renfe eta Generali konpainietan.

NOLA NEURTU ZURE BERRIKUNTZA-PROIEKTUEN INPAKTU SOZIALA

EMAN IZENA

DATAK ETA ORDUTEGIA	Abenduak 1, asteartea. 09:00etatik 14:00etara.
FORMATUA	Aurrez aurrekoa.
LEKUA	Eraikin Nagusiko auditoriuma (101 eraikina), Zamudio/Derioko campusa – Euskadiko Parke Teknologikoa.
IRAUPENA	5 ordu.
PLAZAK	30.
NORENTZAT	• Gerente eta/edo zuzendari nagusientzat, proiektuak eta entitatearen misioa lotu behar dituzten pertsonentzat. • Berrikuntzako eta I+G arloetako arduradunentzat, baita beren ekimenak neurgarri bihurtzeko eta zer aldaketa sorrarazten duten egiaztatzeko beharra duten proiektuen arduradunentzat ere. • Dagoeneko inpaktua sortzeko helburu horrekin lanean ari diren jasangarritasun arloko arduradunentzat. Bereziki gomendatua erakunde hauentzat: • Beren proiektuen inpaktu soziala eta proiektuek entitatearen misioari edo xedeari egindako ekarpena ulertu, neurtu eta kudeatu nahi dutenentzat. • Beren proiektuen inpaktu soziala erakutsi eta komunikatu nahi dutenentzat. • Beren jardueraren inpaktu positiboa biderkatu nahi dutenentzat. *Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- **Inpaktuari buruzko oinarrizko ezaguerak eskuratzea eta gaur egungo testuinguruan inpaktuak zer garrantzi duen jakitea.**
  - Inpaktua neurtzeko ikuspegi nagusiak ulertzeko gakoak.
- **Proiektu baten jardunean sortutako inpaktuak neurgarri egiten eta kuantifikatzen ikastea.**
  - Nola identifikatu eta ulertu proiektu batek sortutako inpaktua.
- **Nola zehaztu inpaktua neurtzeko eta kudeatzeko sistema bat.**
  - Zer tresna eta metodologia dauden eta nola aukeratu kasu bakoitzerako egokiena.
- **Inpaktu-arriskuen azterketarako gakoak.**
  - Zer arrazoi izan daitezkeen nahi dugun inpaktua ez lortzeko.
- **Saioan landutako kontzeptuak eta tresnak benetako kasu batean aplikatzea.**

PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

Abiapuntua

- Zer ulertzen da inpaktutzat?
- Inpaktua sortzeko estrategiak.
- Zergatik da garrantzitsua neurtzea.
- Oinarrizko kontzeptuak: asmo garbi bat izatea, helburu gehigarri bat izatea, etab.

Inpaktuaren logika

- Inpaktuari loturiko helburuak zehaztea.
- Aldaketaren Teoria: oinarriak. Inpaktu-helburuetatik abiatuta urratsez urrats prozesua eraikitzea.

Inpaktuaren ezaugarritzea

- Aldaketaren Teoriatik Impact Management Project (IMP)-aren inpaktuko 5 dimentsioetara.
- Impact Management Project (IMP):
  - Zer aldaketa sortzen dira? *Output vs Outcome vs Impact*.
  - Nori eragiten diote?
  - Zenbat inpaktu lortzen da? Irismena vs. Sakontasuna vs Iraupena.
  - Ekarpena: atribuzioa eta gehigarritasuna.
  - Inpaktu-arriskuak.

Inpaktua neurtzea

- Neurketa-sistemaren logika. Aldaketaren Teoriatik eta Impact Management Project (IMP) proiektutik adierazleen sistemara.
- Adierazleen sistema egitea. Adierazle motak eta adierazleen datu-baseak.
- Inpaktua monetizatzeko metodologiak. Noiz dute zentzua?

Oharra: Innobasqueko bazkide diren erakundeek soilik trebakuntza jaso ondoren jarraipen pertsonalizatua egiteko aukera izango dute.

PRESTAKUNTZAREN GIDARIA

IRANZU SAINZ DE MURIETA
SINNPLEren SORTZAILEKIDEA

Industria Antolakundeko ingeniaria Nafarroako Unibertsitatean, Zuzendaritza Garapeneko Programa IESE Business School eskolan eta *Certified European ESG Analyst* (CESGA) *EFFA* federazioan.
20 urtetik gorako esperientzia du lanbidean. Berrikuntzan eta I+G arloan hasi zen lanean, berrikuntza teknologiko pribatu eta publikoko estrategiei loturiko proiektuak gidatzen. 2011. urtetik Sinnple aholkularitzako sortzaileetako bat da. Horren bidez enpresa "konbentzionalei" jasangarritasuna beren estrategian eta egunerokoan txertatzen eta finkatzen lagundu die, eta ekintzaileei eta entitate sozialei beren inpaktu soziala hazten, neurtzen eta kudeatzen.